




The Bay
Awards
Premiere

URBAN
REVOLUTION
AURRERA!

Organized by:



Partners:



BILBAO METROPOLI 30 ELKARTEAK, HIRIEN ERRONKEI ERANTZUN GLOBALA EMATEKO “THE BAY AWARDS” SARIAK KALERATU DITU

Urriaren 25ean eta 26an Bilbon egingo den “Urban Revolution Aurrera” Kongresuan aurkeztuko da ekimena, eta hamar aditu izango ditu hizlari, sarien epaimahaia osatuko duten nazioartean erreferentzia diren urbanistak

Bilbon, 2023ko urriaren 10ean. Bilbao Metropoli 30, Bilboko metropoli-eremua biziberritzeko elkarte publiko-pribatuak, “**The Bay Awards**” sarien kaleratzea iragarri du. Sari horiek, erronka global handiei erantzuteko planteatu diren eta 2030 Agendaren helburuen esparruan dauden **hirien eta hiri-bizitzaren garapenaren inguruko mundu mailako jarduketa, proiektu eta ekimen eraldatzaile garrantzitsuenak** aintzatesiko dituzte.

Sariak urriaren 25ean eta 26an Bizkaiko hiriburuan egingo den “**Urban Revolution Aurrera (URA)**” Kongresuan aurkeztuko dira modu ofizialean. Bertan, epaimahaia osatzeko hautatutako hamar pertsonak hartuko dute parte, guztiak erreferentziazko urbanistak eta etorkizuneko hirietako pentsamendu estrategikoan nazioarteko liderrak.

“Ekimen hau gure metropolia suspertzeko prozesuan aurrera egiteko aukera emango diguten ideiak eta proiektu aitzindari eta estrategikoak aztertze eta bultzatzeko lanaren barruan dago. 30 urte baino gehiago daramatzagu horretan lanean”, ziurtatu du **Idoia Postigo Bilbao Metropoli 30** elkarteko zuzendari nagusiak URA Kongresua aurkezteko komunikabideekin egindako topaketan. “Gure hirien eta metropolien premia larriei modu erradikal eta disruptiboan heldu behar diegu, *status quo* erabat desberdina benetan bultzatzeko. Gure egungo sistemak, gehienbat, materialki hedakorrak dira, sozialki dibisiboak eta ingurumenaren aldetik kontrakoak eta jasanezinak”, baieztatu du.

URA - Urban Revolution Aurrera Kongresua bi atal handitan banatuta egongo da. Lehenik eta behin, urriaren 25ean, “**The Bay Awards Premiere**” ekitaldia egingo da Bilboko BBK Aretoan. Bertan, sarien kategoriak, epaimahaiaren osaera eta erakunde laguntzaileak

aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, BBK Fundazioa, Bilboko Portuko Agintaritza eta Petronor besteak beste. Une horretatik aurrera, 2023ko abenduaren 31n amaituko den hautagaitzak aurkezteko epea irekiko da.

Ekitaldian **Juan Maria Aburto** Bilboko Alkateak eta **Elixabete Etxanobe** Bizkaiko Ahaldu Nagusiak hartuko dute parte, baita **Idoia Postigo** Bilbao Metropoli 30eko zuzendari nagusiak ere. Azken horrek emango dio hasiera ekitaldiari, URA Kongresua antolatzen duen erakundearen eta “The Bay Awards” sarien izenean.

Sarien “premierearen” ondoren, URA Kongresuko **hitzaldi eta mahai-inguruak** etorriko dira, BBK Aretoan, bi saiotan. Lehenengoa asteazken arratsaldean izango da, eta bigarrena, urriaren 26an, osteguna, goizean, **Jonan Fernández** Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendako Idazkari Nagusiaren parte-hartzearekin. Kongresua egun horretan bertan amaituko da Bizkaia BAT Dorrean, networking saio batekin eta hainbat tailerrekin, baita instalazioetara egingo den bisita gidatuarekin ere. Amaitzeko, “**Urban Revolution Aurrera Manifestua**” kaleratuko da.

Nazioarteko epaimahaia

Gaur goizean iragarri denez, “The Bay Awards” epaimahaiko kideek emango dituzte URA Kongresuko hitzaldiak. Idoia Postigok gogorarazi duenez, “aukera paregabea da planetako hainbat tokitan martxan jarri diren eta pertsonen, hirien eta metropolien bizitzan eragin handia izateko gai izan diren esperientzia esanguratsuenetako batzuk ezagutzeko”.

Horrela, epaimahaia ibilbide ezaguna duten, eta euren jarduera profesionala hirien garapenean eta biztanleen bizitzan eragin nabarmena sortzeko ekintzekin lotu duten bost emakumek eta bost gizonek osatzen dute. **Christian Bason**, Danimarkako Diseinu Zentroko zuzendari nagusia, kasu. Liderrekin eta erakundeekin egin du lan trantsizio ekologikoa eta digitala ahalbidetuko duten diseinu eta prospektiba metodoak aplikatzeko, ez bakarrik hiri mailan, baita herrialde mailan ere.

Gabriella Gómez-Mont mexikarrak TED City 2.0 Prize eta Best Art Practice Award sariak irabazi ditu, besteak beste. ‘Esperimentalista’ izena duen eta hirietan espezializatuta dagoen bulego nomadaren sortzailea eta CEOa da, eta Mexiko Hirirako Laborategiko zuzendaria izan da. **Sophie Howe** britainiarra, berriz, Galesko Etorkizuneko Belaunaldietarako lehen Komisarioa izan zen -erabaki politikoek, hirigintzari eragiten diotenen barne, etorkizuneko belaunaldiak kontuan hartzen dituztela ziurtatzeko sortu zen erakundea–, eta, gaur egun, eginkizun hori bete duen munduko emakume bakarra da.

Geci Karuri-Sebinek 20 urte baino gehiago daramatza hirien etorkizunarekin eta gobernantzaren berrikuntzarekin erlazionatutako gaietan lanean, Afrikako kontinentean eta Hego Globalean batez ere. Wits School of Governance-ko irakaslea da, eta African Civic Tech Innovation Network antolatzen du bertan. Gobernantza da, hain zuzen ere, **David Miller** Torontoko alkate ohi (2003-2010) eta C40 Citieseko presidentearen (2008-2010)

indarguneetako bat. Bere agintaldian, Toronto mundu mailan miretsitako hiria bihurtu zen bere ingurumen eta gizarteratze politikak zirela eta.

Carlos Moreno ikerlaria, '15 minutuko hiria' kontzeptu ezagunaren bultzatzailea, da beste epaimahaikideetako bat. Irakasle elkartua da Parisko Panteon Sorbonna Unibertsitatean, eta Anne Hidalgo Frantziako hiriburuko Alkatearen aholkularia izan da. Bere lanari esker, Ohorezko Legioaren Ordena irabazi zuen 2010ean. Bestalde, **Farah Nazek** 20 urte baino gehiagoko esperientzia du hirigintzan, eta proiektu enblematikoetan egin du lan, hala nola Etorkizunaren Museoan eta Abu Dhabiko Louvren. Bere lana klimaren ikuspegitik adimendunak diren hiriak garatzera bideratuta dago batez ere.

Singapurreko 'Lee Kuan Yew World City Prize' sarietan duen esperientzia da **Larry Ngen** ibilbidearen indarguneetako bat. Sari horien idazkari izateaz gain, Singapurreko pabiloiko komisario nagusia izan da EAUko 2020ko Expoan. **Carmen Santana Serra** arkitektoak, berriz, ikuspegi espezializatua ematen du hiri-ekologian, jasangarritasunean eta IKTek hiri-ingurunean duten eraginean. Espainiako Hirigintza Saria jaso zuen 2021ean.

Azkenik, **Charles Landry**, hiri-diseinuko sormenaren arloko nazioarteko aditu ospetsua, izango da "The Bay Awards"-eko epaimahaiko arduradun eta koordinatzailea. Landry hiriei euren aktibo guztiak zabaltzen laguntzen dago espezializatuta, erresilienteagoak izan daitezen eta euren potentziala ahalik eta gehien aprobetxa dezaten, eta moderatzaile gisa eta topaketaren ideia nagusiak jasotzeko ardura izango duen "keynote listener" gisa hartuko du parte URA Kongresuan.

"The Bay Awards" Sarietarako hautagaien aurkezpena, URA Kongresuan zehaztuko diren kategorietan, sarien 'Premierearen' egun beretik, urriaren 25etik, egongo da eskuragarri. Epaimahaiaren erabakia 2024ko martxoan Bilbon egingo den ekitaldi berezi batean jakinaraziko da.

Bilbao Metropoli 30-i buruz

Bilbao Metropoli 30 (www.bm30.eus) ia 140 kide dituen elkarte publiko-pribatua da. Horien artean daude Bilbo Metropolitarrako hainbat sektore ordezkatzeko dituzten erakunde publikoak, enpresa pribatuak eta gizarte-erakundeak, eta bere helburua, epe luzean ahalegin publiko eta pribatuak ikuspegi partekatuan lerrokatzeko gai izango den hausnarketa-prozesua sustatzea da.

Bideoa:

<https://www.bm30.eus/comunicaciones/urban-revolution-aurrera-the-bay-awards-premiere/>